

ALDI BATERAKO EGONALDIA EGOITZAN, DESGAITASUNA DUEN PERTSONAREN ZAINZAILERAK ATSEDEN HAR DEZAN

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Zaintzailea > Zaintzaileen atsedena errazteko zerbitzuak

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Desgaitasunen bat duten pertsonen **zaintzaile nagusia eta senideak**.

Kostua

Koordainketa duen zerbitzua, egoera ekonomikoaren eta erabilera-modalitatearen arabera.

Baldintzak

Zaintzaile nagusia izatea.

Atsedena hartzeko beharra.

Errolda (12 hilabete).

Zertan datza?

Aldi baterako ostatua desgaitasuna duten pertsonentzat, normalean familiako zaintzaileek zaintzen badituzte beren etxeetan ([2.5 fitxa](#)). Zaintzailea bere eginkizuna aldi baterako betetzea eragozten dion egoera batean dagoenean aktibatzen da zerbitzua (bajan dago, atsedena hartu behar du, oportetara joan behar du...).

Norentzat?

Atsedena behar duten pertsona desgaituen **zaintzaile nagusiak eta senideak**.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta zerbitzua erabiltzeko modalitatearen arabera.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Ezgaitasuna duen pertsona zaindua eta zaintzailea **etxebizitza** eta **udalerri berean erroldaturik egotea**.

Etxebizitza berean **erroldatuta** egotea **12 hilabetez**.

Atsedeen hartzeko egonaldia egingo den egoitza-zerbitzuan sartzeko **baldintzak betetzea**.

Zaintzailea eta zaindua **elkarrekin bizi direla egiaztatzea**, salbu eta, zainketak Udaleko Gizarte Zerbitzuen txostenaren bidez justifikatzen badira.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- [Aldi baterako egonaldia egoitzan, zaintzaileak atsedeen har dezan Araban](#)
- [Aldi baterako egonaldia egoitzan, zaintzaileak atsedeen har dezan Bizkaian](#)
- [Aldi baterako egonaldia egoitzan, zaintzaileak atsedeen har dezan Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)